



ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

| | | | |
|---|---|---------------|-----------|
| Ikastetxea: | IKASBIDEA IKASTOLA IPI | Kodea: | |
| Etapia: | DBH | Zikloa/maila: | 1.MAILA |
| Arloa/irakasgaia: | "GEOGRAFIA ETA HISTORIA" | | |
| Osatutako arloak/irakasgaiak | <ul style="list-style-type: none"> ✓ Munduko Geografia Fisikoa ✓ Historiaurrea eta Antzin Aroa | | |
| Diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak | <p>Bizitzaren egoera ezberdinetan (pertsonala, soziala, akademikoa,...) sortzen diren arazoei aurre egiteko baliabide egokiak erabiltzeko gaitasunak:</p> <p>Komunikatzeko, ezagutzeko, ulertzeko, jakiteko, deskubritzeko, interpretatzeko, ikertzeko, aplikatzeko, garatzeko, erabiltzeko, manipulatzeko, baloratzeko, adierazteko... begirunez, irudimenez eta sormenez, baina modu kritikoa, ideiak, baloreak, adierazpenak, emozioak... baloratuz, gizarte demokratiko, solidarioa, anitza eta inklusiboa eraikitzeko eta hobetzeko.</p> | | |
| Irakasleak: | PATXI G. ARDANAZ MIKEL CORTES | Ikasturtea: | 2021-2022 |

Zeharkako kompetentziak

ZEHAR KONPETENTZIAK *(edo ikusi eranskina: "ZEHAR KONPETENTZIAK ETA ADIERAZLEAK.")

- * **Hitzez** (hiztegia, diskurtsoak, testuak, dialogoak...), **hitzik gabe** (irudiak, mapak, grafikak...) eta **modu digitalean** (informazio iturriak, aplikazio informatiko nagusiak, eskubideak eta arriskuak...) **komunikatzeko kompetentzia**.
- * **Ikasten eta pentsatzen** ikasteko kompetentzia (nola ikasi, kontzeptuak, baliabideak eta tresnak, prozesuak, planak eta estrategiak, hausnarketa eta autoebaluazioa, jakin nahia, auto-segurtasuna eta motibazioa).
- * **Elkarbizitza** kompetentzia (errespetoa eta elkarbizitza, berdintasun eta aniztasun kulturala, justizia eta eskubideak, demokrazia eta herritartasuna, elkartasuna eta elkarkidetzaren... harremanetan atseginez jokatzeko).
- * **Ekimenerako eta ekiteko** espiriturako kompetentzia (planifikazioa, antolaketa eta kudeaketa, arazoak konpontzeko bideak, irudimena eta sormena, ekimena eta berrikuntza...).
- * **Izaten** ikasteko kompetentzia (autoezagutza, autobalorazioa, ondare naturala, kulturala eta artistikoa balioetsi, besteekiko errespetoa, adierazpen askatasuna... ardura).

| Helburu Orokorrak | Ebaluazio-irizpide orokorrak |
|--|--|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurune fisiko eta historikoari buruzko informazio testuala eta ez testuala bilatzeko, lortzeko eta ulertzeko ohizko baliabideak erabili modu egokian. 2. Lortutako informazioa modu kritikoa hautatu, sailkatu eta antolatzeko gaitasunak garatu. 3. Behar den informazioa aztertze eta ikertzeko baliabideak erabiliz inguruneari buruzko lan zehatzak burutu eta diseinatu. 4. Lortutako informazioaz osatutako diskurtsoa azaltzeko eta argudiatzeko baliabideak erabili besteen irizpide eta ideiak errespetatu. | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ebaluaketa banakakoa, jarraitua, hezitzailea eta integratzailea izango da. Hezitzailea izan behar denez, azken helburua ez da soilik ikaslea kalifikatzea, ikasketa prozesuaren balorazioa (arrakasta edo porrota) egitea, eta honen zergatiak argitzea baizik. Ikaslearen gaitasunen garapen maila eta ikasteko prozeduren erabileraren egokitzapena eta baliabideen garapenaren prozesua eta aurrerabidea hartuko da kontutan, hau da, ikasketa prozesua. Etapa, ziklo eta arloaren helburuetan oinarriturik, batetik eta ikastetxe eta ikasleriaren beharretan, bestetik, ebaluatuko da. 2. Ikasleriaren gaitasunen garapenaren aurrerabideak baloratuko dira, hau da, aniztasuna ahaztu gabe, oinarrizko ikasketak jabetu behar dituzte. Aldi berean irakaskuntza heziketa prozesuan agertzen diren hiru eduki mota ere kontutan hartzen dira, hirurak zehatzak eta osagarriak direlarik: (Eduki kontzeptualak, Prozedurak, Jarrera pertsonala) <ul style="list-style-type: none"> • Edukiek suposatzen duten kontzeptuak eta ideiak barneratzen eta azaltzen jakitea. • Barneratutako kontzeptuak erabiliz, Gizarte Zientzietako prozedura zehatzak egiten jakitea: Testu lanketak, kausa-efektuzko ariketak, sintesi ariketak, etab. • Taldeka nahiz bakarka burututako lanak. Ahozko adierazpena sustatzeko asmoz, ebaluazio bakoitzean azaldu beharko dute besteen aurrean (ppt) ikasgaiko osagarriko atal bat. Hiztegiaren erabilpen zuzena. • Ikaskide eta irakaslearekiko errespetuzko jarrera klasean urtean zehar. Jakin-nahia, parte hartzea, pertseberantzia eta esfortsua eguneroko lanean, berraztertze sistematikoa, talde-lanean integratzea, lankidetzan aritzea, ordena eta txukuntasuna. |





EDUKIEN SEKUENTZIA (denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...).

| Helburuak | Ebaluazio-irizpide |
|---|--|
| <p>1. Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea. Orobat, ohartzea zer kultura-ezaugarri direla eta diren euskal gizarteko kide, beste talde batzuetako kide iatzeko aukera eragotzi gabe. Horren helburua da nor bere nortasun zehaztua eta onartua izatea, gizartea hobetzeko ahaleginean modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko. <i>HELBURU HAU URTEAN ZEHAR ERABILTZEN DEN METODOLOGIAREKIN LANTZEN DA EGUNEROKOTASUNEAN.</i></p> | <p>1. Gizartea hobetzeko eta natura babesteko proiektuetan konpromiso arduratsua hartzea, interes pertsonaleko edo/eta talde-intereseko arrazoen gainean hausnartuz, kritikoki hartutako erabakietatik abiatuta. *</p> |
| <p>2. Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarritzko elementuak identifikatzea eta kokatzea zenbait eskalatan (Euskal Herria, Iberiar penintsula, Europa, mundua), eta elementu horien interakzioei erreparatzea, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen. Horren helburua da gizakiaren ekintzak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituen ikustea eta horretaz kontziente izatea. <i>HELBURU HAU GEOGRAFIKO GAJETAN LANTZEN DA. 1, 2,3 ,4, 5, 6 GAIK</i></p> | <p>2. Gizateriaren historiako etapak, hominizazio-prozesua eta aitzin aroaren gizarteen antolaketa ulertzea.*</p> |
| <p>3. Jakitea zein izan diren Euskal Herriarentzat gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak, direla tokikoak, direla mundu-mailakoak, eta denboran eta espazioan kokatzea. Horren helburua da gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa eta globala izatea eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izatea. <i>HELBURU HAU HISTORIAKO GAJETAN LANTZEN DA: 7, 8, 9 GAIK</i></p> | <p>3. Iraultzek gizateriaren eboluzio-prozesuan bat-bateko zer aldaketa sozial, ekonomiko, politiko eta, besteak beste, teknologiko eragin dituzten jakitea.*</p> |
| <p>4. Datu historikoak biltzea, zenbait irizpide erabiliz: denboran orientatzekoak (iragana, oraina eta etorkizuna); denbora-posizio erlatiboak (segidakoak, aldi berekoak, diakronia, sinkronia), iraupena (faktikoa; egoeraren araberakoa; egiturazkoa; iraupen laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa); denbora-neurriak (denbora-unitatea, denbora eta kronologia historikoa). Horren helburua da gizarteen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea. <i>HELBURU HAU HISTORIAKO GAJETAN LANTZEN DA: 7,8,9 GAIK</i></p> | <p>4. Historiako lehen zibilizazioek gizateriaren eboluzioari eta mendebaldeko zibilizazioari zer ekarpen egin zizkieten deskribatzea.</p> |
| <p>5. Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena, aintzat hartu eta errespetatzea, eta norbanakoez zein herriek beren identitatea izateko duten eskubidetzat eta gozamen-iturritzat jotzea. Eta, hura babestu, kontserbatu eta hobetzeak dakarren erantzukizuna onartzea, nor bere esparrutik gizateriaren garapen indibidual zein kolektiboan laguntzeko. <i>HELBURU HAU HISTORIAKO GAJETAN LANTZEN DA: 7,8 eta 9.GAIK.</i></p> | <p>5. Arte-adierazpen garrantzitsuenak zein diren jakitea eta bere ingurune hurbileko eta urrunagoko arte-adierazpenak balioestea, ulertzeko kultura guztiek lagundu dutela gizateriaren garapen artistikoan.</p> |
| <p>6. Gizarte demokratikoez zer antolaketa eta funtzionamendu duten jakitea, eta haien oinarri diren oinarritzko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Eta, giza eskubideak erreferentzia unibertsal moduan erabiltzea norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritziak sortzeko. Orobat, eskubideak urrututa dituzten edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez dituzten herriekin, gizarte-taldeen eta pertsonekin solidarioak izatea eta jarrera eta egoera baztertzailak eta bidegabeak salatzea. Horren helburua da gizarte demokratikoetan modu kontziente, arduratsu eta kritikoa parte hartzea. <i>HELBURU HAU HISTORIAKO GAJETAN LANTZEN DA:</i></p> | <p>6. Zenbait unitate kronologiko erabiltzea denbora historikoa grafikoki irudikatzen eta "aldaketa" eta "iraupen" nozioak adierazteko, zenbait garaitan eta lurralde-eremutan aplikatuta.*</p> |
| | <p>7. Lehenengo zibilizazio historikoen bereizgarri diren ezaugarriak zein diren jakitea eta zibilizazio horiek egungo gizarteen eraketan zer eragin izan zuten ulertzea.*</p> |
| | <p>8. Ondare historiko, artistiko, kultural eta naturala estimatzea eta balioestea, bai berea, bai beste kultura batzuetakoa, haiek errespetatzeko eta babesteko bidea den aldetik. *</p> |
| | <p>9. Zenbait motatako eta eskalatako adierazpen kartografikoak zehaztasunez interpretatzea, haietan adierazitako espazioari buruzko informazioa lortzeko.*</p> |
| | <p>10. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako eta munduko espazio eta paisaia naturalak eratzten dituzten oinarritzko elementuak mapa batean aurkitzeko gauza izatea, eta haietako bakoitzak, oro har, zer ezaugarri geografiko nagusi dituzten adieraztea.</p> |
| | <p>11. Gizakiaren ekintzak natura-ingurunean zer eragin dituen jakitea, eragin horiek deskribatzea eta aintzat hartzea, eta haien zergatiak eta ondorioak aztertzen eztabaidak egitea, haiek mugatzeko beharrezkoak diren neurriak eta jarrerak adieraziz, direla tokikoak, direla globalak, natura babesteko jarduerak sustatzen inplikazio aktiboa eta arduratsua izateko. *</p> |
| | <p>12. Taldeko lanetan eta jardueretan modu konstruktiboan, arduratsuan eta solidarioan parte hartzea, direla taldean ikasteko jarduerak egiteko eta jolas-jarduerak egiteko, direla esku-hartze sozialeko proiektuak egiteko, kide den taldeetan.</p> |
| | <p>13. Hainbat motatako gizarte-informazioak (historikoa eta ekonomikoak) modu egokian bilatzea, erregistratzea eta tratatzea, eta horretarako egokienak diren iturriak erabiltzea (bibliografia, dokumentazioa, materiala eta beste asko), informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak barne.*</p> |

7. Europar Batasunaren antolakuntza politikoaren eta erakundeen funtzionamenduaren berri izatea, jakitea funtsezko zer balio eta printzipio dituzten oinarri, eta haren gabeziarik jarrera kritiko eta arrazoitua hartzea. Helburua da ulertzea Europar Batasuna Europako herrien, estatuen eta eskualdeen harremanetarako eta parte-hartzerako eremua dela, eta beharrezkoa dela hobeto funtzionatzea. (D.B.H. 1.mailan ez dago honekin erlazio naturiko edukirik).
8. Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertuz, eta errealitateak eta egoerak ebaluatuz. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskalatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldean arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko.
HELBURU HAU GEOGRAFIKO 2,3, 4 eta 5 GAIETAN LANTZEN DA ETA BAITA HISTORIAKOETAN ERE, ZEHARKA BADA ERE.
9. Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, gertaera sozialen, politikoaren, ekonomikoaren eta kulturalen arteko loturak aztertuz. Jakintza hori gaur egungo gizartearen bilakaera azaltzen duten kausak ugariak direla ulertzeko oinarria izango da, baita Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko ere, eta horri esker herritarrok gizartea hobetzeko moduan egongo gara.
HELBURU HAU HISTORIAKO GAIETAN LANTZEN DA: 7,8 eta 9 GAIK.
10. Gizarte-zientzien bereizgarri diren kontzeptuzko baliabideak, teknikak eta lan prozedurak aplikatzea, eta arloko lexikoa erabiltzea zehatz eta zorrotz. Horrenbestez, lan monografiko txikiak eta ikerketak egingo dira, bakarka zein taldeka, Euskal Herriaren, hurbileko eremuen eta munduaren jatorriaz eta bilakaera historikoaz ikertzeko.
HELBURU HAU GAI GUZTIETAN ZEHAR LANTZEN DA.
11. Talde-lanak egitea eta eztabaida eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantzia izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta. Orobat, desadostasunak eta elkarriketa gizakien arteko gatazkak eta gatazka sozialak konpontzeko bidea dela ikusi beharko dute, eta taldeko lan-teknikak landuko dira, bai sormenezko lorpen komun bat izateko, baita pertsonaren eta taldearen interakzio nagusi den gizartean egoki txertatzeko ere.
HELBURU HAU GAI GUZTIETAN LANTZEN DA.
12. Informazio geografikoa eta historikoa lortzea. Horretarako, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografiakoa planifikatu, aukeratu eta erlazioatu behar dute (informazioa hainbat iturritatik lortuko dute, komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne). Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzen jakin beharko dute.
HELBURU HAU GAI GUZTIETAN LANTZEN DA.

14. Banaka zein taldeka planifikatzea lan monografiko txikiak, gizarte-garrantzia duten gai batzuei buruzkoak, gutxieneko zorrotasunez eta sistematizazioz eta zenbait informazio-iturri erabiliz.*

15. Zenbait informazio-iturritatik datu geografikoak eta historikoak lortzea, eta lortutako informazioa gainerako pertsoneri egoki jakinaraztea, ahoz eta idatziz.*

(*) Batez adierazitakoak eduki minimoak dira eta bai ala bai bete egin behar dira ikasgaia gaingaitu ahal izateko.

| B 1. MAILAKO EDUKIAK, METODOLOGIA, BALIABIDEAK ETA EBALUAZIOA | | | | | |
|---|---------------------------------------|---------|-------------------------|---------|--|
| SAIO | 1. ebaluazioa | SAIO | 2. ebaluazioa | SAIO | 3. ebaluazioa |
| 3 saio | GEOGRAFIA Geografia sarrera | 12 saio | 4. Klima | 3 saio | HISTORIA Historia sarrera |
| 11 saio | 1. Lurra eta haren irudikapena | 12 saio | 5. Lurreko paisaiak | 8 saio | 7. Historiaurrea |
| 11 saio | 2. Lurreko erliebeak | 8 saio | 6. Kontinenteen atlasak | 10 saio | 8. Ibaietako zibilizazioa: Mesopotamia eta Egipto. |
| 10 saio | 3. Urak | | | | 9. Greziako zibilizazioa |

ARAZO EGOERA I

ARAZO EGOERA:

Ikasleak elkarturik hasiko dira hitz egiten ea zergatik gure gizartean eta mundu mailan geroz eta garrantzia gehiago du klimaren gaiak. Aldaketa klimatikoak eragindako ondorioak geroz eta nabarmenagoak dira. Honen harira, gure testuinguru hurbilak eta urrunak ulertzeko eta munduko egoera fisikoak ondo interpretatzeko lurraren kokapena, erliebeak, klimak, biomak eta mapa fisikoak aztertu eta interpretatu ditugu subjektu "enpoderatuak" izateko.

ARAZO EGOERA II:

Ikasleak arkeologo lanetan arituko dira. Google Maps-en bidez Eskalmendiko trikuharria (Pariburu edo Lakondoa) aurkitu beharko dute eta ondoren bertara joango litzatekeen ikasle talde batentzako bisita gidatu bat antolatu beharko dute trikuharriaren kokapena, garaia eta funtzioak azalduz.

Inguruko trikuharrien informazioa bilatu eta kudeatu.



METODOLOGIA (edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik).

METODOLOGIA:

- Irakasketa prozesuak aktiboak izan behar du. Ikasleak ez da buruz ikasten bakarrik arituko, gaitasun desberdinak garatzeko jarduera anitzak landu behar ditu. Horretarako jarduera erakargarriak izan beharko ditu.
- Irakasketak esanguratsua izan behar du, beraz, aurretik ikasitakoaren gainean erantsi behar dira edukin berriak modu esanguratsuan barneratzeko, horretarako edukien sekuentzia logikoa, jardueren egokitasuna eta baliabideen aplikazioa zainduko da.
- Ikasleak izan behar du bere ikasketa prozesuaren egiazkoa protagonista, bakarka edo elkarlanean. Bereien arteko ikasketa eta lan kooperatiboa ere bultzatu beharko da. Klasean elkarlana egiteko beharko da. Irakaslea ez da izango informazio-emaile eta kontrolatzaile soila, ikasleen gidari eta aholkulari baizik.
- Helburu didaktikoetan oinarrituta egingo da ikasketa prozesu osoa. Jarduera mota desberdinak landuko dira gaitasun desberdinak garatuz eta gaiak induktibo edo deduktiboki lan daitezke; eta horren arabera, egokituko dira jarduerak. Ikerketen bidez edukiak induktiboki lan daitezke, baina kontzeptu berri edota zailak direnean deduktiboki landuko dira kasu gehienetan.
- Aniztasuna kontuan hartu behar da. Jarduerak zailtasunaren arabera maillakatuta egon behar dira. Gutxienezko helburu didaktikoak lortzeko egin beharrekoak diren jarduerak dira lehen mailakoak, eta hemendik aurrera bigarren eta hirugarren mailakoak azalduko dira.
- Hizkuntzaren erabilera zuzena funtsezkoa da. Beraz, kontzeptuen sailkapena, erlazioa eta antolaketa logikoa hartuko da kontutan eta kontzeptuen elkar loturen aurkezpenak baloratuko dira.*
- Ik-KI teknikak aplikatuko ditugu: Atazak irakurri eta edukia barneratzeko "folio birakaria", "arkatzak erdira" eta beste hainbat teknika erabiliko dira

BALIABIDE DIDAKTIKOAK:

- Ikaslearen testu liburuak (Zubia. Santillana "Egiten Jakin" proiektua DBH 1. Maila, Geografia eta Historia) eta Atlasak.
- Lan koadernoak (A-4 tamainakoa). *
- Eskema eta laburpenak kontzeptuak elkar erlazionatzeko. *
- Mapa kontzeptualen bitartez antolatutako testu diskurtsiboak sortu, aurkeztu, eta alderantziz (testu baten ideiak erlazionatuz mapa kontzeptuala sortu) *
- Munduko Oinarritutako Atlasak (Harluet). Mapa mota desberdinen erabilera aktiboa. Mapa geografiko zein historikoak. Homirudiak
- Osagarriko gaiak (apunteak eta fitxak, artikulatuak, jarduerak eta aktibitateak,...
- Irudiak, bideoak eta informatikako baliabide multimedialak.
- PPT (edo PPS) aurkezpenak, kontzeptu-mapak, eskemak, mapa mentalak, ... *
- Ibilbide historiko-geografikoak: Ekain, Gasteizko Alde zaharra, Museoen bisita gidatuak, ... *
- Kontsulta liburuak: urtekariak, liburu tematikoak, honma-irudiak eta irudi bildumak, entziklopediak, internet sarea, ...
- Arbela digitala. Croobook. Wiki eta blog-ak. Google Suite: classroom, ...

EBALUAZIO-TRESNAK (ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...).

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK (ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa).

Ebaluatzen Froga motak

- **Lan eta proiektu monografikoak (indibidualak zein kooperatiboak taldeka), koadernoko jarduerak, classroom,...**
- **Froga espezifikoak:**
 - **Ahozko zein idatzizko galdetegiak, frogak eta azterketak. ***
 - **Eskemak, laburpenak, planoak, mapak, grafikoak edota mapa kontzeptualak erabiliz gai baten aurkezpena. (Ahoz zein idatziz, euskarri analogiko edo digitalean).**
 - **Informazioaren bilaketa selektiboa, antolaketa eta ideien elkar erlazionatzearen estrategiak eta aurkezteko aktibitateak.**
 - **Koadernoaren eta eginbeharreko aktibitateen zuzenketa eta birpasak. Baliabide informatikoen bitartez egin beharreko lan eta gaikako proiektuak.**

- **Azterketa** bat burutuko da, gutxienez, ebaluazio bakoitzean kontzeptuen bereganatze maila baloratzen. Hauetako bakoitzean kontzeptu eta prozedura zehatzak zuzen azaldu beharko dira.

- **Kontzeptuak eta prozedurak** (norbanako eta lantaldearen eguneroko lana, baliabide eta prozeduren erabilera egokia, ...) ebaluazioaren %80ko pisua izan ahalikoa dute. Honetaz gain, zehar kompetentziak **jarrera pertsonalarekin elkar erlazionatuz** (interesa, parte hartzea, lana eta ekimena, ahaleginak, portaera... ardura) ebaluazioaren %20 osatuko du.

- Ebaluazioko notaren kalkulua egin ahal izateko azterketaren **gutxienezko nota 4** izan behar da.

- Ikaslearen **koaderno, lanak, proiektuak, e.a.** jasoko dira ebaluazio guztietan ikaslearen aurrerapena (jarraipen pertsonala) baloratu ahal izateko.

Ebaluazioa gaintzeko, **hiru alderdiak** (kontzeptuak, prozedurak eta zehar kompetentziak) **batz bestekoa 5etik gorakoa izan behar da.**

Kontuan hartuko da idatzizko testuen zuzentasun ortografikoa eta bereziki baloratuko da modu positiboan azterketetan eta idatzizko frogetan.*



| | | |
|--|------------|--|
| KONTZEPTUAK eta PROZEDURAK | %80 | ZEHAR LERROAK %20 |
| Frogak eta azterketak (kontzeptuak) | %60 | Jarrera, jakin nahia, lan pertsonala, ardura, autonomia portaera... |
| Koadernoak (prozedurak) | %10 | |
| Entregatzeko ariketak, lanak, proiektuak... | %10 | |

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK (indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema

Ebaluazio bakoitza amaitzean edo hurrengo ebaluazioaren hasieran, **errekupeazio salo bat** izango da. Salo honetan ebaluatuko dira ikasleari gainditu gabe geratu zaizkion edukiak (kontzeptukoak zein prozedurakoak, eta lan-efortzua ere kontutan hartuko da). Errekupeazio azterketan ebaluatuko diren edukiak **minimoak direnez**, ikasleak gehienez **ere 5 (Nota: Nahiko)** bat atera beharko du.

Ebaluaketa zehar kompetentziak gainditu ez baditu, hurrengo ebaluaketan ikasleak zuzendu beharko ditu ardura, lan konstantea eta esfortzua erakutsiz

Ekainean **amaierako ebaluazioa** gainditu ahal izango dute ebaluazioak gainditzeko dituzten ikasleak.

Errekupeatzeko Froga motak

- Lan monografiko indibidualak eta errekupeatzeko froga espezifikoak.
- Ahozko zein idatzizko galdetegi, frogak eta azterketak. *
- Eskemak, laburpenak, grafikoak edota mapa kontzeptualak erabiliz gai baten aurkezpena. (Ahoz zein idatziz).
- Koadernoaren eta eginbeharreko aktibitateen zuzenketa eta birpasak.
- Baliabide informatikoen (Word, PPT, e.a.) bitartez eginbeharreko lan pertsonalak edota gaikako proiektuak.

PANDEMIA COVID-19 OHARRAK

Osasun egoera aldatuz gero gure gelan zein ikastetxean, klaseak online jarraitu beharko dira. Modu honetan klase presentzialak saiestuz. Plataforma digitala erabiliko da (Classroom) lan egiteko.

MINIMOAK:

Asteriko batez bidez agertzen diren elementuak dira. Hauek aplikatuko dira bakarrik hirugarren eszentaokia (ETXEAN GELDITZEAREN EGOERA) ematen bada.

Irakasleak erabakiko du zein formatutan burutuko diren minimo hauek. Kasu honetan, azterketak, prozedurak, lanak, koadernoaren lana, proiektuak, etab. baloratzen jarraituko dira. Irakasleak eskatu duena bete eta epean garaiz entregatu beharko du ikasleak. Bestela irakasleak ulertuko du ikaslea off line dagoela eta beraz, ez duela notarik edukiko edo suspentsoa izango duela.

OHARRAK II. HIRU ESZENATOKI EZBERDIN

- **EGOERA PRESENTZIALA:** Gelan, era presentzialesan aritzea, ohiko moduan emango dira klaseak. Beti ere, saihestuko dira kontaktuko momentuak izatea ikasleen artean baina klaseak irakaslearekin eta ikaskideekin batera izango dira. Beraz, ez da kurrikulumean ezer aldatuko.
- **EGOERA MIXTOA:** Ikaslea etxetik aritu behar bada lanean (postibo zein PCR-aren emaitzari itxaroten badago). Klaseak online jarraitu eta baloratuko dira, hau da, classroomean lana eginez irakasleak ikaslearen lana ikusiko du. Irakasleak eskatzen duena ongi beteko du eta garaiz egin beharko du. Azterketa bat balego, ikasleari atzeratuko egingo litzaioke.
- **ETXEAN GELDITZEAREN EGOERA:** Lan guztia classroometik egin beharko ditu. Irakasleak eskatzen duena ongi beteko du eta garaiz egin beharko du. Azterketak edo frogak baleude online egin beharko dira. Beti ere, irakaslearen oniritzairean arabera.

***HIRUGARREN ESZENATOKIAN: Modifikatu egingo lirateke. Modu honetan geldituz**

| | | | |
|---|------------|---|------------|
| KONTZEPTUAK eta PROZEDURAK | %80 | Zehar kompetentziak | %20 |
| Azterketak (kontzeptuak) | %40 | Jakin nahia, lan pertsonala, portaera... | %20 |
| Koadernoak edo proiektuak (prozedurak) | %30 | | |
| Entregatzeko ariketak | %10 | | |



Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Baliabide didaktikoak.



<http://hezkontza.blog.euskadi.net/>

<http://www.ikastea.hezkuntza.net/web/guest/buscador-recursos-didacticos>

<http://hezkontza.blog.euskadi.net/ikasblogak2011/>

<https://sites.google.com/a/burdinibarrabhi.net/historia-mintegia/beste-irakasleen-baliabideak>

<http://gizartehizkuntza.wikispaces.com/PIZARRA+DIGITAL>

<https://anabast.wordpress.com/froga/>

<http://historiarakobaliabideak.wikispaces.com/HISTORIAURREA>

<http://historiarakobaliabideak.wikispaces.com/ERDI+AROA>

<http://historiarakobaliabideak.wikispaces.com/ANTZINAROA>

<http://historiarakobaliabideak.wikispaces.com/EUSKAL+HERRIKO+HISTORIA>

<http://historiarakobaliabideak.wikispaces.com/ESPAINIAKO+HISTORIA>

<http://historiarakobaliabideak.wikispaces.com/RECURSOS+HISTORIA+DEL+ARTE-ARTE+HISTORIA+BALIABIDEAK>

<http://baliabidedigitalak.blogspot.com.es/2015/02/telesailak-eta-filmak-euskaraz-series-y.html>

<http://www.eskola20.euskadi.eus/web/guest/eskola-2.0-baliabideak>

<http://www.koldomitxelenabhi-gasteiz.hezkuntza.net/web/guest/euskera-baliabideak>

<http://www.fisterra.com/Salud/5enlaces/diccionarios.asp>

<http://www.hiru.eus/temas-de-estudio>

<http://www.definicion.org/>

<http://www.euskaljakintza.com/>

<http://www.amarua.com/>

<http://www.berria.eus/>

<http://domitx.blogspot.com.es/> (Musika)

<https://goizekoizarra.wikispaces.com/Mapak%2C+atlasak%2C+geografia>

<https://goizekoizarra.wikispaces.com/Hiztegiak+eta+entziklopediak>

<https://goizekoizarra.wikispaces.com/Smart+ADI+webguneak>

<http://www.geohistoria.net/index2.asp>

<http://www.muyhistoria.es/>

<http://iris.cnice.mec.es/kairos/temas/Intercambios/intercambios1.html>

<https://sites.google.com/site/palacorre/ciencias-sociale>

ERANSKINA: “ZEHAR KONPETENTZIAK eta ADIERAZLEAK.”

GIZARTE ZIENTZIEN ARLOAREN BALORAZIOA: %20

| KONPETENTZIEN EZAUGARRIAK | ADIERAZLEAK | ZEHAR KONPETENTZIA K | ARLOAREN BALORAZIOA %20 |
|--|---|--|----------------------------|
| Eskolako pertsonetikiko errespetua eta portaera ona | <p>Errespetoa erakustea (irakasleak eta ez-irakasleak langileak, ikaskideak,...).</p> <p>Modu atseginez jokatzea harremanetan.</p> <p>Harreman sozialetan jarrera irekia erakustea inor ez baztertuz.</p> <p>Denon eskubide eta betebeharrak onartu eta errespetatzen ditu bazterkeria errefusatzuz.</p> | <p>EK</p> <p>IIK</p> <p>IIK</p> | %5 |
| Beste ideia eta iritzien errespetua erakustea. | <p>Eztabaida-prozesuetan besteen ideiak eta iritziak errespetatzea oinarrizko arau sozialak era demokratiko eta baketsuan erabiltzea: hitz egiteko txandak, kortesia-arauak, erregistroa, tonuera, hitzik gabeko hizkuntza.</p> <p>Norberaren ideiak defendatzea era logikoan argudiatzea eta lankidetzatza modu gisa aldentzea.</p> <p>Besteen ideiak, arrazoiak eta sentimenduak entzuten ditu, beste aldeak arrazoiak izan dezakeela onartzen du eta bere ideiak era asertiboan eta errespetuzkoan defendatzen ditu.</p> <p>Besteen lana errespetatzea eta zaintzea.</p> <p>Era kritikoan azaltzea era askotako gaiei buruzko iritzi pertsonala, komunikazio digitalaren eta hitzezkoaren (ahoz nahiz idatziz) askotariko moduak erabiliz.</p> | <p>HDKK</p> <p>EK</p> <p>IPIK</p> <p>IIK</p> | |
| Material didaktikoaren errespetua erakustea. | <p>Norberaren material eta baliabide didaktikoaren zaintza, garbitasuna, txukuntasuna, ordena,... erakustea.</p> <p>Besteen material didaktikoa errespetatzea.</p> <p>Amankomuneko materiala (edota maileguz lortutakoa) era egokian erabiltzea eta zaintzea.</p> <p>Jabetza intelektuala errespetatzen du.</p> | <p>EK</p> <p>IIK</p> | |
| Arloaren balorazio positiboa erakustea. | <p>Arloa ikasteko konprometzua hartzea</p> <p>Arloarekiko errespetua eta portaera ona erakustea.</p> <p>Ikasteko motibazioa bereganatzea.</p> | <p>IPIK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p> | |
| Elkarbizitzako arauak errespetatzea | <p>Era egokian erabiltzea harreman sozialeko oinarrizko arauak, ingurune birtualetan eta aurrez aurrekoetan</p> | <p>EK</p> <p>IIK</p> | |

| | | | |
|---|--|--|------------------|
| <p>Arloarekiko interesa erakustea (aditasuna, irakurketak, elkarrizketak, elkarkidetzak, lan egiteko konpromezua,...)</p> | <p>Klaseko aditasuna azalpenetan, eztabaidetan,... erakustea.</p> <p>Klaseko jarraipena, (irakurketan, azalpenetan, eztabaidetan, elkarrizketetan, aurkezpenetan...</p> <p>Talde lanetan elkarkide moduan lan egitea aportazio positiboa emanez.</p> <p>Norberaren eguneroko lana era egokian gauzatzea.</p> | <p>HDKK</p> <p>IPIK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p> | <p>%5</p> |
| <p>Klasean parte hartzea</p> | <p>Azalpenetan aditasuna eta zentzuduneko galderak eta aportazioak egitea.</p> <p>Jardueretan modu aktiboan parte hartzea.</p> <p>Lan egiteko prest egotea.</p> <p>Taldeko lanetan parte hartzea.</p> | <p>HDKK</p> <p>IPIK</p> <p>EK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p> | |
| <p>Puntualitatea (eta lanak entregatzeko epeak...)</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Lanak entregatzeko epeak errespetatzea - Puntualitatea klasean - Puntualitatea jardueretan | <p>EK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p> | |
| <p>Ikasle moduan ardura erakustea (norberaren material didaktikoa eta lanaren zaintza, ikasteko konpromezua, erantzukizuna, ...)</p> | <p>Ardurak hartzen ditu, bere lan pertsonala antolatzen du eta berrikusi egiten du amaitu ondoren.</p> <p>Baliabide didaktikoen zaintza</p> <p>Ikasteko konpromezua eta prest egotea.</p> <p>Jardueretan parte hartu modu aktiboan,</p> <p>Ikasitakoaz jabetzen da</p> <p>Bere erabakiek gainerako pertsonengan eragin dezaketela onartzen du</p> | <p>IPIK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p> | <p>%5</p> |
| <p>Autonomia eta auto-kontrola (, , , , seriotasunez jokatzeko)</p> | <p>Betebeharrak egitea denbora aprobetxatuz eta epeak betez.</p> <p>Era egokian ebaluatzen ditu bere aurrerapenak</p> <p>Autoebaluazioa egitea hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.</p> <p>Ikasteko autoestimua</p> <p>Erabakiak hartzea, estrategia eta teknika egokiak erabiliz.</p> <p>Iturri desberdinak erabiliz informazioa bilatzea eta kudeatzea.</p> <p>Ikasteen seriotasunez jokatzeko.</p> <p>Bere emozioak onartu eta erregulatzeko baliabideak eta estrategiak erakustea.</p> | <p>IPIK</p> <p>EK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p> | |

| | | | |
|--|--|---|----------------------------|
| <p>Euskara, hizkuntza behikularra bultzatzea.</p> | <p>Euskara erabiltzea eskolako jarduera guztietan: lan egitean klasean eta lan-taldeetan, zein jolastean patioan.</p> <p>Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta sortzea ezarritako jarraibideei segituz.</p> <p>Ikasgaiko hiztegi tekniko, sinbolo, grafiko eta ohiko beste zeinu batzuk interpretatzea eta erabiltzea.</p> <p>Arloaren gaiei buruzko iritzi pertsonala ematea ahoz zein idatzizko hizkuntza erabiliz.</p> <p>Askotariko testu motak ulertzea, interpretatzea eta erabiltzea.</p> <p>Hizkuntzaren erabilera egokia eta akatsen zuzenketa gauzatzea</p> <p>Etengabeko hizkuntz hobekuntzarako prest egotea</p> <p>Kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak ahoz zein idatziz adieraztea.</p> | <p>HDKK</p> <p>IPIK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p> | <p>%5</p> |
| | | | <p>GUZTIRA: %20</p> |

HDKK: Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentziak

IPIK: Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia

EK: Elkarbizitzarako kompetentzia

EEEEK: Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia

IIK: Izaten ikasteko kompetentzia